

AZKUE SARIAK-2010. A maila

Badakizu? Kanpoko begiek bikiak dituzte barruan. Ez dakit irisik edota ninirik badaukaten, ez dakit malkorik isurtzen baduten ere, baina egon badaude, eta, ondorioz, izan ere badira, zeregin zehatzak eta funtzio oinarritzkoak betetzen dituztelako. Agerikoez uneari erreparatu ahala, ezkutukoek jasotakoa gorde eta aurretik bildutakoarekin lotzen dute, askotan, usain, hots eta guzti egin ere, halako txoko berezi batean, erdi ganbara erdi biltegian, eta, orduan, guk zerbait gogoratu nahi dugunean, txoko berezi horietako begi gorde horiek zabaltzen dira eta iraganeko hura berriro ikusten dugu, eta berdin gertatzen da norbaiti pasatutakoa geureganatzen dugunean ere, entzun, ikusi, sentitu, dastatu, ukitu edo irakurritako hori txoko berezi horretan sartzen da eta bertako begiekin ikusten dugu, ia-ia, guri geuri jazo izan balitzaigu bezala, eta horrela lortzen dugu behin edo behingoa asmatzea ere, txoko berezi horretan aterik gabeko bi gelaxka daudelako, elkarrekin lanean, elkarrekin paseatzen, bata Oroimen izenekoa bestea Irudimen.

Bi gelaxka horiek hornituta mantentzea ez dakit nori dagokion. Lehiaketek laguntzen duten ala ez ere ez dakit, baina kontua da halako batek bildu gaituela hemen, banakako gisa nahiz erakunde moduan, helburu berberarekin: literatur sorkuntza bultzatzea.

Gauzak honela, "R.M. Azkue" sarian A Mailako lanak aztertzeko epaimahaia osatu dugu Igone Etxebarriak, Antton Irustak eta nik neuk, Yolanda Arrietak. Hiruron artean lanak aztertu eta iritziak eztabaidatuta, sariak honetara banatzea erabaki dugu.

NARRAZIOA

Narrazioari dagokionez, hiru sari barik, lau ematea erabaki dugu, aipamen bat gehitu dugu.

1. **saria: 54: AMETSA BESTE AMETS BATEAN.** Ondo idatzitako lana, ondo lotuta eta narrazioaren haria ondo eroanda daukana, amaiera arteko intrigaz ondo josia.
2. **saria: 71: HIRU URTE.** Elikadura-arazoak dituen neskato baten istorioa lehen pertsonan kontatua. Egoera narratiboaren progresioa ederto eroanda dago. Amaiera oso errealista eta heldua da, ipuina biribildu egiten du.
3. **3. saria: 61: ETORKIZUNA GUREA DA.** Mutil-lagunaren gaixotasun larriaren aurrean zelan aldatzen, garatzen eta indartzen den gazte biren arteko harremana. Gai horren inguruan hainbat egoera, sentimentu eta gogoeta garantzen dira. Oso ondo idatzia.
4. **Aipamena: 86: ZEINTZUK DIRA NIRE GURASOAK?** Hamar urteko ume adoptatu bat bere egoeraz jabetzen denekoa kontatzen du. Ondo idatzita dago. Sinesgarria da. Emozioen garapena oso ondo kontatua: kanpotik enteratu, ohiko mundu ezaguna erori, gurasoen aitortza, ondorengo zalantza existentziala, onartu ezina, amorrua, zergatiak jakin nahi izatea eta berriro onarpena.

OLERKIA

Olerkietan, lehenengo saria eman barik uztea erabaki dugu. Beraz, sariak honetara banatuko dira.

1. saria: Hutsik.

2. saria: 04: AITORTU, ARREN. Maitemindu batek lagunak maite ote duen jakiteko daukan gogo intentzio poetikoz adierazia. Isilpeko nahi edo gurari baten aitortza.

3. saria: 15: NATURAREN ZAINDARIAK. Hitz-jokoen bidez eta onomatopeien laguntzaz, animaliak eta Lurra zain ditzagun deia egiten zaigu gizakioi. Polito eraikia.

Zorionak sortzaileoi, zorionak bitartekari eta laguntzaile guztioi, eta gogoratu, moduak asko dira, lekuak ere badaude, tarteak ere har daitezke. Beraz, itxi atea burrundarari, isiotu argia gogoari eta, *abrite portas, klis, klas!*, adi begi gordeei, adi ganbara gordeari.

Yolanda Arrieta Malaxetxebarria

Bilbon, 2011ko martxoaren 22an